

BEHOBIA-DONOSTIA 2015

Igandean eskualdeko kirolari ugari, urtero bezala, Behobia-Donostia lasterketa herrikoian izango dira. 20 kilometroko lasterketa modu desberdinean biziko dute Xabier Zabalak eta Ion Galarragak.

Xabier Zabala Zeberio • Boluntarioa

«Atleta guztien emozioak jasotzen ditugu»

‘Boluntario Star’ saria eman zioten iaz Zabalarri. Duela bi urte, lasterketari ekarpen bat egin zion asmakizun berezi batekin.



Xabier Zabala Zeberio, emaztearekin eta haurrekin. ATARIA

ASIER IMAZ AMASA-VILLABONA

Mendia maite du Xabier Zabala Zeberio (Tolosa, 1965). Baina kirola egiteaz gain, boluntario lanetan ibiltzea ere tokatzen zaio. Behobia-Donostia lasterketan 10 urte baino gehiago daramatza lan horretan. Tolosan jaio eta Villabonan bizitu zen. Ondoren, bikote bitzita Hondarribian egiten hasi zen, 1997an.

‘Boluntario Star’ saria jaso zenuen iaz Behobia-Donostian?

(Barreak) Fortuna Elkartek urtero boluntario bati sari hori ematen dio; aitorpen gisa. Benetan, ordea, horrek esan nahi du beste fase batera pasatzen zarela: gatibutzara. Trampa bat da. Ohore guztiak ematen dizkizute, gero grina gehiagorekin lan egiteko. Ez, broma bat izan da.

Agian ez da broma?

(Barreak). Egia esan kirola asko gustatzen zait, eta hainbat ekintzetan parte hartzen dut. Fortunarekin mendi martxak eta abar egiten ditugu, eta azken 15 urteak batera eta bestera joanaz pasa ditugu. Behobia-Donostiaren ondoren ospakizun moduko bat izaten da, antolatzaile eta boluntarioekin. Urtero-urtero boluntario bati ematen diote saria, eta iaz, niri tokatu zitzaidan. Polita da.

30.000 parte hartzaile. 1.300 boluntario. Lasterketa berezia da.

Parte hartzea da duen gauzarik one-na. Denek bere lasterketa bezala

sentitzen dute. Kirolaren mugak gainditzen dituen lasterketa bat da, plano emozional batera jauzi egiten duena. Denak dira jabe, eta arrakasta hor dagoela esango nuke; sentimendu hori orokorra baita.

Eta sentimendu hori zabaltzen ibiltzen zarete boluntarioak.

Gure ikuspuntua ondorengo da: aurrena, lana ahalik eta ondoen egitea. Eta ondoren, informazioa biltzea, hurrengo bileran, jaso ditugun iritziak eta ekarpenak mahai gainean jartzeko. Egiten dugun hori luxu bat da guretzat, atleta guztien emozioak jasotzen baititugu. Eta hori deskriba ezina da. Adrenalina topera dutela iristen dira parte hartzaileak, eta hori zuri transmititzen eta kontatzen dizute. Luxua bat da.

2002 inguruan hasi zinen boluntario lanetan Behobia-Donostian. Anekdota bat izango duzu.

Doping-aren aurkako probak egiteko lekuko giltzak galdu egin ziren behin. Udaletxera korrika joan beharrean izan ginen, lokal berri baten baimena eskatzeko. Eta hantxe egin genuen doping-aren aurkakoa. Irabazleen motxilekin ere gorabehera batzuk izan ditugu... baina beti agertzen dira azkenean.

Momentu txarren bat?

Ez. Umore onez hartzen dugu etortzen dena. Batzuetan prentsarekin zorrotzago jarri behar izan dugu, baina elkar ulertuz. Helmugan, irabaz-

learekin elkarrizketa segidan egin nahi izaten dute, baina horretarako gune egokituak daukagu. Hurbilegi jartzen dira batzuetan, baina hor gelditzen badira, pilaketak sortzeko arriskua izaten da. Normalean kasu egiten digute.

Eta duela bi urte, arazo hori konpontzeko asmakizun batekin azaldu zinen.

(Barreak) Fortunan rokodromoa daukagu, eta soka zaharrak aldatu egiten dira. Soka horiei berrerabilpena ematen hasi ginen lasterketan. Xabi Perez *speaker*ra egoten den lekutik helmugara soka horietako bat jarri nuen. Inork ez zuen pasa.

Iganderako prest al daukazu soka?

Aste honetan presa sartzen zaigu, eta igandean zer eman, paper batean apuntatzen aritu nintzen joan den gauean. Zerrendan lehena soka zen.

Behobian bakarrik ez, beste hainbat probetan ere boluntario bezala egoten zara.

Donostia Hondarribia Mendi Trail-aren ere egoten gara. Orduan familia osoa izaten gara, seme-alabek ere ikas dezaten atzeko lan hau zer den.

Danenako kamiseta jantzi, eta ez al zara lasterketara animatzen?

(Barreak) Krosean hasi nintzen, eta Donostiako Maratoian parte hartu nuen garai hartan. Eta lesionatu egin nintzen. Gazteegia nintzen frogari egiteko; esperientzia falta. Garin anaiekin eta beste hainbatekin ibiltzen ginen Danenan entrenatzen. Nik beti azkena bukatzen nuen, baina nire neurrian gustura ibiltzen behintzat ikasi nuen.

Amaitzeko. Nola da posible zeberiotar bat izan, eta musikarekin loturirik ez izatea?

Ardi beltzen batek beti egon beharra dauka. Bere garaian, Ruiz Bona Tolosako Bandako zuzendariak horrela esan zigun anaia eta biori: «Esan zuen amari dirua gastatzen ez jarraitzeko. Belarria edukatu egiten da, baina zuek araua puskatzen duzuen salbuespena zarete». Ez gara musikan heziak izan, baina horrek ez du esan nahi musika gustatzen ez zaigunik, eta lehengusuak jarraitzen ez ditugunik: Xabi, Juanxo, Migel...

Ion Galarraga • Txirrindularia

«Lehen bosten artean sartuz gero: txapeldun!»

Zaila izango duen arren podium-ean amaitu nahi du igandean bidania-goiazarrak



Ion Galarraga bidaniarra, handbike-arekin. ATARIA

A. IMAZ BIDANIA-GOIAITZ

Laugarren Behobia-Donostia izango da igandekoa Ion Galarragarentzat (Bidania-Goiaz, 1985). Bigarren multzoan puntan ibiltzea gustatuko litzaioke eskualdeko atletari. Aurkarien maila ikusita, ordea, badaki ez dela erraza izango.

Zain egonagatik iristen ez den eguna da igandekoa.

Oso berezia. Txikitatik entzuten duzu jendea Behobia-Donostiaz hitz egiten. Probatzen duzunean, aldiz, barnean zerbait pizten zaizu, eta berriro itzuli nahi izaten duzu; marka hobetzera edo besterik gabe ahalik eta hobekien egitera.

Zure kasuan, marka hobetzera eta postuaren bila joango zara.

Hobetzera espero dut, eta podium-ean sartzea ere polita izango zen. Baina nortzuk datozen ikusita, ia ezinezkoa izango dela iruditzen zait. Lehen bosten artean sartuz gero: txapeldun!

Zein da zure marka?

Ibilbidea aldatu egin zuten iaz, eta pentsatzen nuen hoberako izango zela, baina ez nuen espero horrenbestearainokoa izango zenik. Ia bost minututan jaitsi nuen nire aurreko denbora. Erreteriatik pasatzen da orain ibilbidea, eta horrek errazago egiten du. Haizea ere alde izan genuen, eta 45 minutuan iritsi nintzen.

Zuek emango diozue hasiera lasterketari.

Gurpildun aulkian modalitate desberdinak daude, eta gurea handbike da. 09:30ean aterako gara. On-

doren irristalari edo patinatzaileak, eta segidan korrikalariak.

Helmugan ere lehenak, orduan.

Aurrena amaitzen dutenak bai, baina besteok irristalarietara borrokan ibiltzen gara. Parean izango gara, ea aurretik sartzea lortzen dugun.

Aurkari gogorak aipatu dituzu. Nortzuk etorriko dira?

Joel Jeannot munduko txapelduna, adibidez, hemen izango da. Atletismo aulkian marka berak dauka, eta iaz ez zen etorri. 35 minuturen azpitik ibiliko da bera. Haize asko egingo duela esaten ari dira, eta horrek ere eragina izango du. Frantziatik beste hainbat atleta ere etorriko dira, horien artean iazko txapelduna. Bestalde, Zaragoza, Madril... horiekin ibiliko naiz ni, gerra pixka bat eman nahian. Lehenengoez ziurrenik hasieratik alde egingo dute. Ondoren bigarren multzo bat egongo da, eta hori egiten saiatuko naiz. Hori eginez gero, helmugan aukerak izango ditudala uste dut.

Materialarentzat laguntzarik izaten al duzu?

Ez. Babesleren bat edukitzea ondo egongo litzateke materialaz gain bidaiak, medikuak... behar izaten baitira. Une honetan ez daukat babeslerik, baina 2016rako ideia horrekin nabil. Ea norbaitek urrats hori eman nahi duen edo interesatzen zaion.

Herriarrak izango al dituzu ondoren igandean?

Batzuk hor izango dira. Herrian ez gara asko, baina hor ibiliko gara; batzuk ikusten eta besteak lasterketan.